

GERRARI EZ, EZ UKRANIAN EZ ETA INON!

Gerra Errusiak 2022ko otsailaren 24an sortu izanaren sentsazioa helarazi da, eta gerra amaitzeko aukerak honako hauek direla saldu: Errusia presionatuko duten zigorrak ezartzea (zenbaitzuk operazio militarrek ere eskatu dituzte) edota bake-akordioa.

Halakoei aitortza emateak ez du uzten ikusten gerran dagoen mundu baten bizitzen ari garela, eta gerra bera onartzea eta legitimatzea dakar; etxetik urrun tokatzen badira, betiere. Otsailaren 24 berean, ordea, Israel Siria bonbardatzen ari zen eta herri palestinarra zanpatzen jarraitzen zuen; Saudi Arabia Yemen sarraskitzen ari zen; Kolonbian buruzagi politiko eta sozialak erailtzen eta mehatxatzen... Zerrendak ez du etenik. Kasu honetan, gatazka legitimatzea eta onartzea ez da soilik AEBk eta EBk Ukrainari babesa ematea Donbasseko errepubliken aurkako gerran; isiltasuna bera ere legitimazioa eta onarpena da.

Zaldibiako Udaletik oso larrizat jotzen ditugu eraso hauek eta gogor salatzen ditugu. Ekinbide militarra bertan behera utzi eta Ukrainan dituen indar armatuak bertatik ateratzea eskatzen diogu Errusiari.

Ezberdintasunak Nazio Batuen Gutunaren esparruan bide baketsu eta diplomatikoen bidez konpondu behar direla berresten dugu.

Bereziki kezkatzen gaitu zibilen egoerak, eta eskala handiko gerra batek eragin lezakeen krisi humanitarioak.

Azkenik, Ukrainan gertatzen ari dena arbuiatzeak ez digu ahantzarazten munduko beste leku batzuetan gertatzen ari dena, hala nola, Yemen, Palestina, Kurdistan...

Horregatik eskatzen dugu:

- Errusiak Ukrainan egindako eraso militarra erabat salatzea.
- Nazioen arteko ezberdintasunak modu diplomatikoan konpontzea.
- Gerrarik ez; ez Ukrainan eta ez inon.
- Ukraniarrei euskal gizartearen eta instituzioen babes osoa adieraztea.

Zaldibian, 2022ko martxoaren 1ean.

ZALDIBIAKO EUSKAL HERRIA BILDU

